

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, 2008-KO ABENDUAREN 31-N EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO FUNDAZIOEN INBENTARIOAREN TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak 2008ko abenduaren 31n zeuden Euskal Sektore Publikoko fundazioen inbentarioa egin du. Txostena HKEEren Osokoaren kideen gehiengoz onetsi dute.

Lan hau mamitzeko gogoan hartu da Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Printzipio Arautzaileen Legearen 23 bis artikulua, 2/2007 Legegintzazko Dekretuari gehitutakoa, Euskadiko Ondare Legearen testu bategina onesten duena; artikulua horrek definitzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko fundazio izateko bete behar diren baldintzak.

HKEEk adierazi du ez dagoela berariazko arauketarik ez foru sektore publikoko fundazioentzat, ez tokiko sektore publikoentzat ere, eta arestian aipatutako legeria eta estatukoa aztertu ondoren, inbentario honen ondorioetarako soilik, Euskal Sektore Publikoko fundazio izateko da gutxienez bi baldintza hauetatik bat bete behar du:

- a) Euskal Sektore Publikoak, HKEEren 1/1988 Legearen ondorioetarako definitutakoa, zuzenean nahiz zeharka, gehiengoz egindako ekarpen batekin eratzea.
- b) Beren fundazio-ondarea, ehuneko berrogeita hamarretik gorako portzentaje batean, aurreko idatz-zatian adierazitako erakundeek emandako edo utzitako ondasunez edo eskubidez eratuta badago modu iraunkorrean.

Irizpide hauek baliatuta, zerrenda osatu da eta bertan barne hartu dira:

- EA Eren Sektore Publikoko Fundazioak: Herri-Ogasuntza Nagusiaren Antolarauak betetzen dituztenak.
- Beste fundazio batzuk, zeinetan euskal administrazio publikoek ekarpenak gehiengoz egin dituzten eta zeinetan aurrez aipatutako betekizunen bat betetzen den, bai erakunde bakar baten ekarpen bidez (eta halakoetan foru esparruko, toki esparruko edo EH Uren fundazioak bereizi dira) edo hainbat erakunderen ekarpen bidez, eta halakoetan Euskal Sektore Publikoko hainbat erakunderen

partaidetza gehiengoa duten fundazio modura izendatu dira. Berebat, badira beste fundazio batzuk, non patronatuko kideak EA Eren Sektore Publikoko erakundeen gehiengoz izendatuak izan ez diren; alabaina, dela hasierako ekarpena, dela ondarea, % 50 baino kopuru handiagoan sektore horretako erakundeek ekarri dute; horiek ere barne hartu ditugu.

Gainera, fundazio pribatuak jasotzen dituzten beste bi zerrenda barne hartu dira. Lehenengoan, adierazitako bi irizpideetarik bat ere betetzen ez duten fundazioak jaso dira; horietan, baina, patronatua gehiengoz Euskal Sektore Publikoko erakundeek izendatutako patroiek osatzen dute. Bigarreanean, 2008an diru-laguntza publikoen kopuru adierazgarria jaso zuten fundazio pribatuak barne hartu dira.

2008ko abenduaren 31n, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren datu basean 484 fundazio zeuden jasoak eta arestian aipatutako irizpideei jarraiki, horietatik 44 bereiz daitezke Euskal Sektore Publikoko fundazio modura; horien ondare garbia 2008ko abenduaren 31n 278 milioi eurokoa da. Hona hemen egindako sailkapenaren laburpena, txostenean xehetasunez jaso dena:

FUNDAZIOA	KOPURUA
EA Eren sektore publikoko fundazioak	6
Gehiengoa duten EA Eren Adm. Publikoko fundazioak, gehiengo patronaturik gabe	8
Foru esparruko fundazioak	7
Udalen esparruko fundazioak	7
EHUren fundazioak	1
Euskal Sektore Publikoko hainbat erakunderen gehiengo partaidetza duten fundazioak.....	15
Euskal Sektore Publikoa osatzen duten fundazioak	44
Kontrol publikoa duten fundazio pribatuak	21
Beste fundazio pribatu batzuk, finantzaketa publiko adierazgarria dutenak	20
Fundazioak guztira	85

Txostenak azaleratu diren alderdiekin atal osagarri bat jasotzen du, fundazioen gaineko kontrola eragiten dutenak eta erregistro, informazio publiko eta legeriari dagozkionak.

Azkenik, aztertutako fundazioen izaeraz ikuspegi zabala izatearren hainbat eranskin mamitu dira, administrazioetako sailen araberako egiturari jarraiki horien sailkapena egiten duena.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas